

Gorbeia Suzien mendi lasterketea hilaren 8an

Mendi lasterkari onenak eta jente asko espero da Zeanurin urri bigarrenaren 8an, Gorbeia Suzieneko mendi lasterketak dirala-ta. Gorbeia Suzien Skyrunners 32 kilometroko lasterketan 600 lasterkarik emon dabe izena eta 21 kilometrokoan, 200ek. Skymasters Munduko Kopako finala be jokatu da. Hori dala-ta, trafiko aldaketak egongo dira eta Pagomakurrera joateko autobusa ipiniko dau antolakuntzeak. **11. orrialdea**



Correfocs argazkia da aurtengo irabazlea

Sua, gaua, jaia... Epaimahaikoen arabera, Xabier Iturriaga billaroztarrak Saloun ateratako argazki honek gau berezi bateko giroa ondo transmitiduten dauako eta konposizino bikaina daukalako eroan dau aurtengo saria.



Igaz 46 argazki eta aurtun 77 argazki izan dira lehiaketan parte hartu dabenak. Irabazleak, astegoen bat nekazal turismoko etxe baten izango dau saritzat.

Maila oneko argazkiak lehiatu dira aurtun; eder-ederrak eta onak teknika aldetik. Batzuk urrunekoak eta beste batzuk hurrekoak, uda hone-tako plazer handiko momentuak erakusten dabez. **8. eta 9. orrialdeak**

ZEANURI

Hazia musikala estrenau dau Gontzal Mendibilek

Jose Maria Arizmendiarieta Mondragon kooperatibearen sustatzailearen bitzta eta pentsamentua jasoten dau lanak. Kantu, jantza, antzerki, eta irudiek osotuten dabe ikuskizun "garaikide" eta freskoa, estreinaldian arrakasta izan dauana. **12. orrialdea**

Sasoi
FISIOTERAPIA ETA ERREHABILITAZIO ZENTROA

- Kirol eta edozein motatako lesioen tratamendua
- Ondoez muskularrak
- Bertaratu ezin direnentzat etxeko zerbitzua
- Postura okerrekin eragiten dituzten kalteak salbesterako ikastaroak
- Erlaxazioa
- Zoru pelbikoaren ariketa terapeutikoa
- Hipopresiboak

Olibani auzoa 5, Igoite
 611 500 566
 @sasoi.fisioterapia
 Sasoi Fisioterapia
 sasoi.fisioterapia@gmail.com

ARANTZAZU

Arantzazuko Comecaran enpreseak 50 urte bete ditu

Galdaragintza erdi-astun enpresa hau soldadura mekanizatua, makinak eta mantentze lan industrialak egiten ditu, besteak beste. Hogeta hamar langile inguru dira eta hiru miloi eta erdiko fakturazinoa dauka. 2006tik, Arantzazun ezeze, Bildosola Industrialgunean beste tailer bi be badaukaz. **5. orrialdea**



ARTEA

Sei taldek joko dabe Basoa Gara alkartasun kontzertuan

Kaserna, Lentejas, Foterie, Puro hasta luego, Kutxaratxas eta Niño Feriante taldeek, urri bigarrenaren 15ean, Arteako Basoa defendatzaileen etxean joko dabe. Jaialdiaren helburua bikotxa da; alde batetik, Basoaren autofinantziazinoan lagundutea eta, bestetik, proiektua beste espazio soziologikoetara zabaltzea, hau da, ezetuten emotea.

Musika estilo desbardinak ditue taldeek eta jaialdian, taldeen artean, aldrikapen mezuatarako eta giza eskubideen defendatzaileen lekukotasuna entzuteko aukerea egongo da. **12. orrialdea**

Literatura txokoa

AUTOBUSA BERRIRO BERA GABE ABIATU ZEN EGUNEKOA

Zen pentsamentua croissant bat da. *Autobusa berriro bera gabe abiatu zen egunekoa* dauka izenburu egunerokotasunari gozazarre egiten deusnari komiki intimista honek. Clementine nahiko galduta dabil aspaldion, zalantza existentzial mordoa daukaz eta erantzunak barriz, gitxi. Zorionez, bizitzak izaten dauz ustekabe ugari eta okindegiko azken croissant ezin erosteak ez dau esan gura suerte txarra daukazunik, aukera barria jatortzula baino. Ipuin txikiz josita dago liburua, gehienak zen pentsamentu eta herri literaturatik jasoak eta egungo egoerara ekarriak, hari luze baten matzak, bere horretan interesgarri eta sakon, eta orokortasunean, biribila. Frankobelgikarra deritxan mo-

bimentuaren barruan kokatu geinkez Marko marrazkigilearen irudiak, lerro garbiak, aire ugari, ondo eregitako atmosferak, argia zenbat gura... Gidoia Bekarena da, moldaketa lan txukuna, alkarizketa arinak eta halako kutsu poetikoa daukiezan hausnarketak. Azkenekoz, Cosson koloregileak ezinbesteko parte-hartzea sinatzen dau. Marraskia ona da, gidoia ederra eta Cossonen aukeratutako kolore indartsuek beste maila batera daroe komikia. *Autobusa berriro bera gabe abiatu zen egunekoa* Harriet argitaletxeak bere erronka hasteko hautatu eban lehen komikia da. Hain zuzen be, argitaletxe honek badarozaz zazpi bat urte euskeraz lehen mailako lanak itzuli eta

ekoizten. Bere atzean dago Gregorio Muro "Harriet" hamarkada askoan komikigile (hasi Ipurbeltzetik eta gerora Frantzian lan mordoa argitaratutakoa), gerora animazioan trebatua (Goya sarietara izentaua izan zan) eta oin editore dana. Abentura sano ausarta, baina liburuko aipu batek dinoanez: "Ontziak askoz seguruago daude portuan, baina ontziak ez dira horretarako eraikiak".
@fantomastxiki



Beka, Marco eta Cosson

Autobusa berriro bera gabe abiatu zen egunekoa

Harriet Ediciones, 2017

72 orrialde

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako farmaziak

09:00etatik 22:00etara

Urri bigarrenaren 3tik 9ra

Andrea Lavin Abadia. Lemoa. Atutxa Sailburua 1
Tel.: 94 631 30 18 eta 652 733 820

22:00etatik 09:00etara

Gutierrez. Amorebieta-Etxano.

Urri bigarrenaren 10etik 16ra

Rodriguez Martinez. Igorre. Agirre Lehendakaria 27
Tel.: 94 673 61 09 eta 688 635 154

22:00etatik 09:00etara

Ruiz Golvano. Amorebieta-Etxano.

Urri bigarrenaren 17tik 23ra

Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15
Tel.: 94 673 93 22 eta 609 402 908

22:00etatik 09:00etara

Goiria Montoya. Amorebieta-Etxano.
Zeberioakoak ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan. 22:00etatik 09:00etara

Zoco Robles Miren Nekane. Urbi 15. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 600 74 63

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 680 19 74

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 01 85

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Arratiako Udalen

Mankomunitatea 94 631 17 17 /

mankomunitatea.arratia@bizkaia.org

Gorbeialde Landa

Garapenerako Alkartea

94 631 55 25 / gorbeialde@gorbeialdea.com

Areatzako Parketxea 94 673 92 79

IKE 94 673 62 51 / kulturetxea@igorre.net

Euskotren 94 433 33 33 / euskotren.eus

Areatzako Notariotza 94 673 92 26

Errota Fundazioa

688 854 543 / info@erota.eus

Arratiako Musika Eskola

94 631 73 52 / www.arratiakomusikaeskola.eu

Bizkaibus 94 612 55 55

3917 linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Bilbotik. Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro. Jaiegunean orduro 07:15etik 22:15era.

Zeanuritik. Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan. Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan. Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan. Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunean: 07:45etik 21:45era orduro.

3911 Linea. Bilbo-Galdakao Ospitalea-Lemoa-Durango-Elorrio

Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 22:00etara orduro. Zapatu eta domeketan Durangoraino.

Elorriotik. Lanegunetan 06:45etik 20:45era orduro.

Durangotik. Lanegunetan: 07:10etik 21:10era orduro. Zapatuetan: 06:30etik 21:30era orduro. Jaiegunean: 07:30etik 21:30era orduro.

3912 Linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango-Ermua-Eibar

Bilbotik. Lanegunetan: 06:30etik 22:30era orduro. Jaiegunean: 07:30etik 22:30era orduro.

Eibartik. Lanegunetan: 06:00etatik 21:00etara orduro. Zapatuetan: 06:20tik 21:20era orduro.

Jaiegunean: 07:20tik 21:20era orduro.

3925 linea. Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Bilbotik. Lanegun, zapatu eta jaiegunean, Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Ubideetik. Lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunean: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.

* 08:45ean, 14:45ean eta 18:45ean urteten diran zerbitzuak Barazaren gelditzen dira.

Otxandiotik urtekerak. Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunean: 08:55etik 20:55era orduro.

3927 linea. Bilbo-Lemoa-Zeanuri (autopistatik)

Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro. Zapatu eta jaiegunean ez dago zerbitzurik.

Zeanuritik. Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro. Zapatu eta jaiegunean ez dago zerbitzurik.

3928 linea. Artea-Zeberio-Ugao Zeberiotik Ugaora.

Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 08:20, 09:10*, 11:00; 11:45*, 14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20.

*Basauriraino bakarrik.

Basauritik Zeberiora. Lanegun eta zapatuetan: 10:00, 12:45*, 19:20.

*Artearaino bakarrik.

Ugaotik Zeberiora. Lanegun eta zapatuetan: 07:20, 08:40, 10:20, 11:20, 13:05, 14:30, 15:30, 16:30, 19:40, 20:40.

Arteatik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 06:50, 08:00, 14:00, 16:00.

Ugaotik Arteara. Lanegun eta zapatuetan: 13:05, 15:30, 20:40.

Igorretik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 07:55ean.

Ugaotik Igorrera. Lanegun eta zapatuetan: 07:20ean.

Zeberiotik Arrigorriagara. Jaiegunean: 08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arrigorriagatik Zeberiora. Jaiegunean: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union 94 427 11 11

Bilbo-Gasteiz

Lanegunean: Ubidekoak 09:15ean urteten dau eta Otxandioakoak 16:00etan. Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan urteten dau Bilbotik.

Jaiegunean: Ubidekoak 10:00etan urteten dau eta Otxandioakoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunean: Ubidekoak 09:00etan urteten dau Gasteizetik eta Otxandioakoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urteten dau Gasteizetik.

Jaiegunean: Ubidekoak 16:30ean urteten dau Gasteizetik.

Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea. **Helbidea:** Herriko Plaza 24, 48142 Artea. **Tel.:** 94 673 90 13. **E-posta:** begitu@begitu.eus. **Webgunea:** www.begitu.eus. **Zuzendaria eta publizitate arduraduna:** Iñigo Iruarizaga. **Tel.:** 649 979 115. **E-posta:** inigoirua@begitu.eus. **Erredakzino burua:** Beatriz Azpiri. **Tel.:** 649 979 112. **E-posta:** beazpiri@begitu.eus. **Erredakzinoa:** Asier Abrisketa eta Beatriz Azpiri. **Webgunearen arduraduna:** Asier Abrisketa. **Tel.:** 626 647 923. **E-posta:** asierabrisketa@begitu.eus. **Maketazinoa:** Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarizaga. **Banaketza:** Garbikuzi enpresea (Arantzazu, Areatza, Artea, Bedia, Dima, Lemoa, Ubide, Zeanuri eta Zeberio) eta Ugutz Zuluaga (Igorre). **Tiradea:** 7.300 ale. **Inprimategia:** Bidasoa inprimatzeko zentroa. **Facebook:** Begitu Aldizkaria. **Twitter:** @BegituEus **Instagram:** @begitu.eus



Aldizkariaren edukiaren eta diseinu grafikoaren egile-eskubideak Zertu Kultur Elkartearenak dira, baina partekatu daitezke *Creative Commons Aitortu Partekatu lizentziaren bitartez (CC-by-sa)*. Beraz, erreproduzidu, banatu, jente-aurrean komunikatu, eraldatu daitezke, beti be iturria aitatzuz eta egiletza aitortuz, eta baldintza horreen pean partekatuz.



Ale kopurua 7.300 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

Babesleak:



ZEURE BERBEA

Gorbeialde eta Arteako Udala La Gilda del Norte, langileak esplotetan dituan enpreseagaz bat

Nahiz eta La Gilda del Norte enpresako jaubeak langileen esplotazioagaitik salaketak euki, normaltasun osoz parte hartu dau Arratian antolatutako hainbat azokatan.

Pasau dan abenduan herritar batzuek, neuk barne, Arteako Udalari eta Gorbeialderi (Arratia bailaran azokak antolatzen dituan alkartea) kontu honen inguruan sortutako ezinegonak, kezak eta kexak adierazo geuntsezan. Azken honen erantzuna izan zan, udal bakotxak ebatziko ebalab La Gilda del Norte konbidatutea edo ez. Artean izandako azoka baten Udaleko zinegotzi bateri enpresa honen parte hartzeaz galdetu eta gero, errubakotasun presunzioa dala-ta azokan parte hartzeako eskubidea eukala.

Aurten ospatutako Merkartean

be La Gilda del Norte enpreseak parte hartu dau. Lan Ikuskaritzeak 40.313,83 euroko lehen isuna ipini deutso enpreseari kontratu barik hiru langile atzerritar lanean izateagaitik eta diru baltzean soldatak ordaintzeagaitik. Hau ez da abian dagoan prozedura bakarra, Lan Ikuskaritzeak beste hainbat akta ditu; kontratu barik lanean egozan langileak ikuskarien kontroletan ostondutera behartzeagaitik, haurdun egoan andra bateri abortetako presinoa egiteagaitik, edo COVID-19agaz kutsatutako langileak euren lanpostuetara joatera behartzeagaitik.

Oin ez dago errubakotasun presunziorik, sententzia bat baizik. Zergaitik izan dau lekua azokan? Zein da beste produktore eta herritarrei bidaltzen zabizien mezua? Danak balio dau?

Zuen azalpenak entzuteko irrikitan egoteaz gainera, azokan parte hartzeako konbitea zeren arabera edo zertan oinarrituta dagoan jakitea gustauko litxakigu.

IGITIE ARRATIAKO BASERRITAR AGROEKOLOGIKOEN ELKARTEA ETA KAFRANGAK ANDRA TALDEA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu 15 lerro baino gehiago idazterik. Izena, telefonoa eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: beginu@beginu.eus helbidera.

Zirhika

ARTELATZ ETA TXARAKIN

Hitanoagaz hasteko aholkuak (X). Kale berbakunea sustatu guran

Ibili:

Ibili aditzagaz adibide batzuk egingo doguz.

-Nondik ibili HAZ ba oporretan.
-Ba Portugal aldetik ibili NONA.
-A bai eee! Nire ahiztea handik JABIK ointxe!
Eta hi BAHABIL nora joan pentsetan ala?
-Ba ezbaian NABIÑE mendi edo hondar!
-Bueno ba, ibili HAI ondo habilen lekutik!

-Nondik ibili haiz oporretan.
-Ba Portugal aldetik ibili naun.
-A bai eee! Nire ahizpa handik zebilek orain!
Eta hi ba al habil nora joan pentsatzen?
-Ba zalantzan nabilen mendi edo hondar!
-Bueno ba, ibili hadi ondo habilen lekutik!

ERETXIA

Euskal Herriko Jatunaldi Lodien biharamun indartsua

Euskal Herriko lehenengo Jatunaldi Lodien antolatzaille izateko suertea izan dot aurren. Jatunaldien antolakuntzako kideak ezin kabidu gagoz urri lehenengoaren 9tik 11ra Gernikako Astra espazioan bizitakoagaitik. Bazan ordua Euskal Herriko lodiok espazio propio, kolektibo eta autogestionaua izateko eta eskertzekoa da baita BEGITUk lerro batzuk eskaintzea horren inguruan idazteko.

Loditasunaren gaia normalean ikuspegi medikotik landu izan dan gaia da, patologizazio medikoa eta inbisibilizazio soziala izan ohi da lodien lekua. Horregaz apurtuteko hautua egin genduan 100 bat trans, marika, bollera eta emakumek jatunaldietan. Lodion bizitza ez da nahitaez jasanezina, ez dot gura biktima paper bat marraztu, baina egia da egunerokoan biziten doguzan biolentzien zerrendan dagozala lan diskriminazioa ("buena presencia" etiketearen bidez esaterako), inbisibilazazioa eta burla produkzio kulturalen, diskriminazioa osasun sisteman, bazterketa afektibo-sexuala, autoestimu murriztua, norbere buruagazko gorrotoa eta abar. Gure bizitzak ospatzeko eta gure egunerokotasunean bizi dogun horri izena ipini eta politizetako aukerea izan zan Gernikakoa.

"Zergaitik da politikoa loditasuna?" izan zan jatunaldien beharra ulertzen ez ebenek jaurtitako galdera ohikoa. Euskal Herriko lodiok ordea, argi daukagu: politikoa politizatzen dana da, eta indibidualizata eta despolitizata egoanaren politizazio ariketearen adibide izan dira jatunaldiak. Jule Goikoetxeak politizazioa etenbako prozesua dala dino. Ez dakigunez zer pribatizau, naturalizau edo moralizauko daben, ez



MIJO LIZARZABURU

Filosofiako ikaslea eta militante feministea

no sistema ugarigaz nahasten dan lodifobia sufriduten dogulako. Helburu politikoakaz egiten da gorputzen gobernua, alde batetik politikoki otzanak diran gorputzak produziduten dira eta bestetik, estadistika edo estimazio bidez biztanleria erregulatzen da.

Erraz ikusi daiteke lodifobia zelan erabilten dan estadistikek markautako legea beteko daben gorputz otzanak produziduteko gero eta ohikoagoak diran gailu digitaletako aparatu biometrikoakaz. *Smartphone* edo *smartwatch*ek zure bihotz taupadak eta pausu kopurua neurtu dekiez jada. Ondorioak aurrean daukaguz, gorputz otzana ikusten dogu egunean 10.000 pausu egiteagaz obsesionata eta enpresa farmazeutikoek *big data* biomedikoa erosten. Laster, gure gorputza algoritmo koderatutzeko gailu sofistikatuagoak etorriko dira, gero eta kontrol teknika zehatzagoak aplikauko ditue eta guk ni-aren zaintzarako arau barri moduan biziko doguz. Bitartean osasungintza publikoa baliabidez hustuko dabe, pribadua indartu eta biztanleriari "zaindu zeure burua"ren estiloko esloganak errepetidu.

Horren aurrean antolatu ginan lodiok Astran. Tailerrak antolatu genduzan kirolaren, sexualidadearen, infanzia lodien, artearen eta osasungintzearen inguruan. Erreferente artistiko lodiak lehen lerrora ekarri genduzan bertso-saioak, kontzertuak eta monologoak antolatuz. Estatu Espainoleko aditu eta militanteak etorri ziran Euskal Herrira, euren esperientziez berba egin eta gure bidean argi apur bat ipintera. Gorputzen normaltasun itogarrietatik kanpo egoteko espazioa izan ziran Jatunaldiak, alkar ezetu, ulertu, alkarregaz jan eta alkar-jateko espazioa. Hiru egun izugarri izan ziran.

Jatunaldiak amaitu dira, baina zeozeren hasikerea izateko helburuagaz egin ziran. Jarraituko dogu gizarte anitz eta politago bat egiten, lodifobia agertzen dan leketan burrututzen. Hau hasi besterik ez da egin!

dakigula zer politizauko dogun. Loditasuna politikoa da, ez gure bolumena politikoa dalako bere baitan, baizik eta beste dominazi-

NETFLIX

EUSKARAZ

WWW.PANTAILAKTUSKARAZ.EUS

EUSKARAZKO IKUS-ENTZUNEZKOEN ALDEKO EKIMENA

Sinatu eskaerea helbide honetan:

<https://www.change.org/p/basque-governments-netflix-netflix-euskaraz-in-basque-en-euskera>

LUMATUTEN



MAITE ARTABE
URKIRI

Oroitzapenak

Areatzako jaietan Los Trogloditasen kontzertuan izan nintzan eta kontzertua gusteteaz gainera, gogora arazo eustan rockaren seme-alabak garala gure belau-naldikook eta neu bereziki rockera sekula izan ez nazan arren, untzatuta daukaguzala hots horreek gaztetan taberna eta jaietan entzutearen entzuteaz.

Ederra da gogoratzea, plazerra eta emozinoa sortzean ditu.

Gainera esango neuke urte honeetan hainbeste hedatu dan momentu presentea gurtzeari zelanbaist aurre egiten deustala; duda barik kontzertu hori gozatzearen oinarrian egozan beste sasoi baten izandako bizipenak.

Izan be, gure iraganak markau egiten gaitu; bizitza ezin da izan eztanda egiten daben momentu atomizauen gehiketa bat, holan ezingo geunskio zentzurik hartu. Iraganak eta nora bideratu gura dogun, etorkizunari atenzinoa ipintek zentzua eta osotasuna

emoten deustie.
Halan ez naz guztiz eroso sentiduten momentua bakarrik biziteko mezu horreekaz eta horregaitik gustuko dodaz nire biografia gogora arazoten deusten bizipenak.
Garrantzitsua da memoria, maila orokorrean beste personalean, bizirik jarraitu daigun. Zerbaitegaitik antxinako grekoen mitologiak be bat egiten eban ahaztutea hiltzagaz. Kontetan eben hildakoak Hadesen egoten zirala Caronten ontziaren zain beste mundura pasetako; eta bertan Lete ibaia, ahantzurearen ibaia: bertako ura edaten eben izandako bizitza ahaztu eta barria hasteko.
Biografia ez ahaztutea eta kontetea uste dot oinarrizkoa dala egindako bidea analizau eta jagokon garrantzia emeteko, non gagozan eta nor garan hobeto ulertuteko. José Carlos Ruizen liburuan irakurri dodan legetxe, analisi hori errealagoa eta sakonagoa dalakoan nago, "happykraziak" eta psikologia positiboak behin eta barriro aitatzen deuskun momentuaren goraiatzea baino. Atenzinoa bizitza osoari eta ingurukoari ipini behar jako momentuari eta norbere zilberrari baino gehiago.
Bide batez, agur rockero zahar guztioi, beti bizirik!

ZERTZEAN



Hiltzen lagundu

RAFA UGALDE

Maitatzeko gaitasuna galtzen dudan egunean, orduantxe, neure buruaz beste egiteko gaitasunik ez badut hil nazazue.
Ez arduratu koordinazioa galtzen badut eta, guztiz baldartuta, behin eta berriro jausten banaiz.
Ez arduratu hitza galtzen badut eta totelka, adur jarioen artean berba entelega ezinak sortzen baditut.
Baina maitatzeko gaitasuna galtzen dudan egunean, orduantxe, hil nazazue.
Kuleroak zikintzen baditut, ez arduratu, kuleroak aldatu ordeztu.
pardelak aldatu behar badizkidazue ere ez arduratu.
Zuen izenak nahasten edo ahazten baditut ere ez arduratu.
Baina begietan dudan argi izpia zuen aurpegiak argitzen ikusten ez duzuenean, zuek ikustean ikusmenak dakarkidan lilura opakotasun bilakatzen den egunean, orduantxe, zuek maitatzeko gaitasuna behin galduta, hiltzen ez banauzue ere lagundu iezadazue hiltzen, sikiera.

* Zertzean atalean argitaratzen doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera ereduari ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITU argitaratu gura izan ezker, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak begitu@topagunea.com helbidean.

ago

BEGI TXINDORRA

Igazko udan *Summer of Soul* pelikulea ikusi neban. 1969an Harlemen egindako musika jaialdi bat jasoten dau. Bertan, besteak beste, Stevie Wonder, B.B. King eta Nina Simone moduko musikearen jenioak egon ziran. Baina musika jaialdi eder bat baino gehiago izan zan, *black pride*, baltzen harrotasuna bultzatu eban-eta. Izan be, zuzeneko kalidadezko musikeak emozino berean batzean dau jentea eta komunitadeari kohesinoa emoteko gaitasuna dauka. Komunitade hori, baztertuta dagoanean, poderearentzat arrisku-tsuak izan daitezke musika jaialdiak. Horregaitik totalitarismoek galazoten dabez kontzertu eta jaialdiak.
Dimetalek, sortu zanetik metal udagoiena eskaintzen deusku XXI. mendeko metalzaleoi. Aurreko urteetan talde gehiago eta ugariagoak egon dira Dimetalen, eta aurten, batez be euskal metal klasikoa eskaini deusku. Musika estilo bakotzak, emozino batzuk adierazoteko balio dau. Heavy metalak bereak. Horregaitik dogu hain beharrezkoa Dimetal. Eta Dani Alvarezek oholtaza gainean esan eban lez, "Dimetal moduko jaialdi gitxi geratzen dira".
Datorren urtekoaren zain gagoz oin, baina pozik; izan be, 2023ko urri lehenengoaren atzen astegoienerako, gero eta gitxiago falta da.





Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

LORAZAINTZA

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisl.com



BEER & EDARIAK
Guillermo 659 48 28 39

Fernando 699 29 67 17	Arkaitz 677 46 40 91
Eduardo 647 72 96 24	Golder 666 58 20 06

Pozuetz poligonoa, 10 LEMOA • beeredariak@gmail.com





Ortodontzia
Implanteak
Estetika

Marina Urigoitia Aldekoa
Odontologoa

Bidebarri 1. behe
48140 Igome-Bidaia
T. 94 631 50 39
Idazgaita Zerbaita: 900
R.P.S. 31/06

LEMOA

Udalak enplegarritasuna hobetuteko programa bat diseinatu dau

Udalaren arabera, egungo tesguinguru sozioekonomikoan, gero eta persona eta enpresa gehiagok behar dabe laguntzea eta beharrezkoa da hurreko zerbitzu integrala eta kohesionaia, lan arloko erakunde eta eragileen artean landuteko.

Erredakzioa

Helburu horregaz Lemoako Udalak enplegarritasuna hobetuteko programa bat diseinatu dau. Saioa Elejabarrieta alkatearen esanetan, programa hori herriko errealidadean oinarrituko da eta "Lemoako enpresen langile beharrianetan eta enplegu eskatzaileen edo lan hobekuntza baten bila dabizenen profilak kontuan hartuko ditu". Lehen fasearen helburua, enpresek behar dituen pertsonen profila ezetutea da, eta behar daben laguntasuna identifiketea. Horrerri erantzuteko, Udalak en-

presa horreetara talentua bideratzeko daukan eskaintzea aztertuko dau.

Parte-hartzea

Aldalan aholkularitza enpresea arduratuko da azterketa egiteaz, eta, horretarako, Lemoako enpresa ugarigaz ipiniko da hartu-emonetan. Ekimen hau zementariarte luzatuko da. Azterketa prozesu honetan parte-hartzea eskatu deutse alkateak enpresei. "Denporea eskaini eta in-formazinoa emon ezkeru, zuen lehiakortasunean eragina izango daua sinetsita gagoz" dino Elejabarrietak.

IGORRE

Auzoetako bideak konponduko ditu Udalak



Erredakzioa

Lehendakari Agirre kaleko obrak amaitu dira. Lanok 37.900 euroko aurrekontua euki dabe, eta Asfaltia enpresek egin dauz, bidean sortutako zuloak konpondu eta zoladurearen desnibelak bardinguteko. Auzoetako bideen txanda da oin eta konponduteko esleipena mar-tzan egon da. 356.239,92 euroko aurrekontua dauka proiektuak. Santa Luzia, Loiate, Mikele eta

Agarre auzoetako bideak konponduko dira. "Herrigunea eta auzoak lotzeako eta lotura horreek hobetuteko konpromiso argia erakutsi dogu beti. Kasu honetan, bere momentuan azterketa sakona egin genduan auzoetako bideen egoera zein zan ikusteko. Ikerketa horren emaitzaren ondorioz plan-gintzea zehaztu genduan, eta dato-zan hilabeteetan gauzatuko dogu" azaldu eban Illart Gumuzio Igo-reko alkateak prentsa-ohar baten bidez.

ARANTZAZU

Industria siderurgikoaren erakusgarri, Comecaranek 50 urte bete ditu

Oingo udan 50 urte bete ditu Arantzazuko Comecaran lantegiak. Galdaragintza erdi-astun enpresa hau soldadura mekanizatura, makinak egitera eta mantentze lan industrialetara dediketan da besteak beste.



Erredakzioa

Hogeta hamar langile inguru dira eta hiru miloi eta erdiko fakturazioa dauka enpresek. 2006tik, Arantzazukoaz gainera, Bildosola Industrialgunean beste tailer bi daukaz. Makineria barria sartuz, Comecaranek asko handitu dau bere ekoizpen ahalmena atzen urteotan. Izan be, 2017an, 8 m-ko luzera, 2 m-ko irulte eta 18 tona arteko Gurutzpe tornua erosi eban eta igaz 5 metroko MTE fresatze makina bat, mekanizadu arloa sendotuz. Zentral nuklearretako urak fil-tretako eta energia sortzeako mota guztietako instalazioe-

tarako ekipoak egiten dituela azaldu deutso BEGURI Mari Paz Diazek, Comecarango finantza arduradunak. Baita lupetzen tratamenturako be. Eta "bezeroen planoakaz, edozein ekipo egiten dogu". Fakturazinoaren zati bat makineriaren mantenimentu lanetatik ateraten dau Comecaranek. "Mantenimentu industrial gure negoziaren zati garrantzitsu bat da. Bezeroa dagoan lekura joaten gara eta mantenimentu mekanikoko edozein lan egiten dogu: geldialdiak, konponketak, desmuntatzeak..." dino Diazek.

Aurrera begira

Hasikeran, oin dala 50 urte eta urte askoan, euskal industria

siderurgikoko enpresentzako egiten eben lan; untzigintza eta altzairugintzako enpresentzako makineria egiten batez be. "La Naval eta Acerinox moduko bezeroak euki genduzan. Oindino batzuk mantentidu arren, beste batzuk desagertu egin dira eta beste batzuk deslokalizau. Txina eta beste herrialde merkeagoetan erosten dabez makinak. Horixe da gure sektore tradizionala. Beti ibili gara horretan, batez be, enpresea sortu zanean. Oin dala 15 urte ingurutik hona, uraren tratamentuetako ekipoak egiten doguz batez be. Zentral nuklearretako urak iragzteko ekipoak esate baterako. Hidroelektrikoentzako be egiten dogu lan, Iberdrolarentzat". Atzen urteotan, untzigintzea, hotel sektorea eta enpresa aeronautikoak be euren bezero nagusien artean dagoz.

Aurrera begira, arlo komertziala asko indartu dabela eta baikorak dirala dino Diazek. Ha-ta guzti be, ziurbakotasun handia daukie, kostuak izugarri igon diralako eta igoera prezioetara eroatea gatxa izango dala uste daualako finantza arduradunak; izan be, "sektore honetan, kostu eta prezioaren arteko aldea txikia eta kompetentzia handia" izaten dala dino.

DIMA

II. Bardintasun Plana 2023an indarrean sartzea espero dau Dimako Udalak

Bardintasunerako II. Planaren proposamena egiten dabiz Diman, lehenengo planak, 2010. urtean onartutakoak, herrian izan dauan garapenaren ebaluazinoa eta egungo egoerearen analisisa egin ostean.

Erredakzioa

Planak lau urteko indarraldia izango dau, 2023tik 2026ra, eta lau ardatz ditu: gobernu ona, andren ahalduntzea, ekonomia eta gizarte antolakuntzea eraldatzea eta indarkeria matxista bako bizitzak sustatzea, hain zuzen be. Urri bigarrenaren 5ean herritarakaz saio irekia egingo da planaren zirriborroa aurkezteko

eta eretxiak jasoteko. Behin hori eginda udal plenora eroango da eztabaidatu eta, hala bajagoko, onartuteko. Zemendiko udal bilkurara eroatea aurreikusten da. Lanketarako Elhuyar Aholkularitzaren laguntzea izan dabe eta aukeraketea, beste ordezkari politiko eta Andraizeako kideekaz batera egin zala azaldu deutso BEGURI Iurdana Acasuso zinegotziak.

Oin dala 12 urte onartutako I. Bardintasun Plana "guztiz gaintu dauan proposamena da hau. Adibidez, aurrekoan ez zan indarkeria matxistea aitatzen ezta andrak ahalduntzea be" dino Acasusok. Emakunderen dirulaguntzea jaso da lanketea finantzatzeko, eta Arratiako Udalaren Mankomunitateko Bardintasun Teknikariaren laguntzea be izan dabe planaren proposamenerako.

IGORRE

Herri-kirol erakustaldia egongo da Garbeko Azokan hilaren 9an

Erredakzinoa

Urri bigarrenaren 9an, 10:00etatik 13:30era izango da aurtengo Garbeko Azokea. Hogeta hamar ekoizle inguruk eroango ditue Garbera barazkiak, frutak, gaztaia, ogia eta artisautza produktuak. Eguerdiko 12:00etan Mikel Agirrek eta Unai Osak egingo dabe herri-kirol erakustaldia.

Urtero lez, danetarik ekarten saiatu dirala dino Xabier Altube antolakuntzakoak, "baita gauza bariak be". Udagoiena da urte sasoirik ugariena baserrian eta bistan egongo da Garbeko salmahaietan.

Bere sorreratik 1975ean, azokeak baserri giroa ekarri gura izan dau Garbera eta herri-kirol



edo ikuskizunen bat egin izan da merkaduagaz batera. Igazko COVID-19aren neurri murriztaileek azokea egitea ahalbideratu eben baina herri-kirolik edo ikuskizunik ez. Aurten berreskuratuko da herri-kirol erakustaldia.

Egokitzen jakin

Behin baino gehiagotan desageritzeko arriskuan egon dan arren, sasoiria egokituz jarraituten dau Bizkaiko azoka antxinenetako bat dan Garbeko Azokeak. Sortu zanean, 1975ean, ganadu azokazan, baina laster baserriko produktuak saltzeako azoka bihurtu zan, eta ortuariak hartu eben protagonismoa. Holan jarraituten dau.

COVID-19aren neurrien dekretuek galazota, 2020an ez zan egin eta 2021ean, merkadua erreperau zan baina herri-kirol edo erakustaldi barik. "Aurreko azoken bardina berreskuratuko da aurtengoan" Altubek esandakoaren arabera.

ARANTZAZU/DIMA

Udagoieneko jaiak ospatuko ditue Dimako Indusin eta Arantzazun

Erredakzinoa

Urri bigarrenaren 4an, Asisko San Franziskoren eguna da eta Arratian, besteak beste, Dimako Indusin ospatuten dabe. Horretarako auzokoek alkarregaz bazkalduko dabe eta erromeria be egongo da auzoan hurrengo astegoienean. Hilaren 13an barriz, San Fausto eguna da, eta Arantzazuk jaiak ospatuko ditu. Egun biko egitaraua prestatu dabe. Herriko mugetatik mendi buelte eta baba jana izan goko dabe zapatuan.

Indusi (Dima)
Urri bigarrenak 4, martitzena
12:00etan, mezea eta ostean, barauskarria.

Urri bigarrenak 7, barikua
17:00etan, Briska Txapelketa.
19:00etan, txitxi-burduntzia.
21:00etan, Eingo taldea.
22:00etan, txokolate jana.

Urri bigarrenak 8, zapatua
12:30ean, Dimako Gazte Barri jantza taldearen emonaldia.
14:00etan, Baba Lapiko Lehiaketa.
14:30ean, bazkaria; bazkalostean bertsolariak: Gorka Pagonabarraga eta Ibon Ajuriagojeaskoa.
17:00etan, umeentzako ekintzak.
19:30ean, Berakatz-zopa, Tortilla eta Ogizko Tostada Lehiaketa.
21:00etan, Julen Axperen bazarriketa.

22:00etan, Jainaga eta Narbaizagaz erromeria.
22:30ean, txokolate jana.
23:00etan, zozketa.

Arantzazu
Urri bigarrenak 15, zapatua
09:00etan, Arginatx Mendi Elkar-teak antolatuta, Mugarri Bira. Industrialdean hamaiketako.
14:30ean, baba jan herrikoia.
17:00etan, Inguma taldeagaz bazkalosteko kantu eta jantzak.
21:00etan, Olatz Txurruka dj-a Herriko Tabernako terrazan.

Urri bigarrenak 16, domekea
10:00etatik 14:00etara, Gure 2. azokea. Arratiako artisauak, ehun barriak eta bigarren eskuko musika eta liburuak plazan.
12:00etan, Rakel Imazen *Munstroak, printzesak eta sorginaren bat* ipuin kontaketa udaletxeko goiko lokalean.
14:00etan, Txikiren bakarriketa 40 urte eta aldapan behera niek Herriko Tabernan.



IGORRE

Eskolako jangelan jateko osasuntsua aldarrikatzeko antzerkia

Erredakzinoa

Urri bigarrenaren 14an, 16:30ean, Igorreko Inazio Zubizarreta Guraso Elkar-teak antolatuta, eskolako patioan, Katiuska ta Katiluk *Gure jangela osasuntsuak* antzezlan eskainiko dabe. Ostean, merienda osasuntsua egongo da bertara hurreratutako ume eta nagusientzat.

Gizartea gero eta konzienteagoa da jaten dogunak eragina daukala gure osasunean eta ingurumenean, eta eskolako jangelen eredu aldaketa eskatzen dabe Euskal Herriko eskola askotako guraso alkar-teek. Umeei, hurreko produktuak eskolan bertan egindako menuak eskaintzea eskatzen dabe.

Katiuska ta Katilu
Katiuska ta Katilu Hezkuntza eta Antzerki Biziak, arte plastiko eta eszenikoetako profesional talde bat da. Ikuspegi ekologistako lana egiten dabe, "balioetan oinarritutako genero ikuspegiagaz, pertsonak gure garaiko behar ekosozialetara egokitzen lagunduteko".



AREATZA

Merkadua, bazkaria, musikea eta berakatz-zopea Areatzako Euskal Jaian

Erredakzinoa

Bueltan da Areatzako Euskal Jaia eta bertan, euskal sukaldaritza zaharra edo tradizionala dastatzeko aukerea egongo da. Goizean bertako produktuen dastaketa; bazkarian, marmitakoa, sahieski errea eta pantxineta, gura izan ezker sagardaoagaz edo ardaoagaz eta iluntzean berakatz-zopea.

Merkaduak eta musikeak osotuten dabe egitaraua. Euskal Jaia urri bigarrenaren 15ean ospatuko dau Areatzak.

Goizean, nekazal eta artisau azokeagaz hasiko da jaia, bertako produktuen dastaketa be goizean zehar izango da. 13:00etan Akelarre Grass Brass taldeak kalejirea egingo dau, herriko txoko guztietara jantzan egiteko moduko musikea eroanez.

Herri bazkaria 15:00etan izango da frontoian eta bertan euskal sukaldaritza tradizionalako jatekoak dastatzeko aukerea egongo da. Hasteko, gilda bat egongo da; lehenengo plater moduan, marmitakoa; bigarrena, saiheski errea tximixurriagaz eta postretzat, pantxineta.

Hau dana, ogia, ura, kupeleko sagardoa eta urteko ardaoagaz. Gero kafea. Bazkariaren prezioa 17 euro dira eta txartelak Areatzako tabernetan erosi daitezke.

Erromeria eta dj-a
Arrastiko 18:00etan, Frakazuri Gazte Asanbladeak antolatuta, kuadrillak umorez betetako Herri Olinpiadetan neurtuko dira. Ostean, 19:00etan, kalejirea egongo da Arratiako Eingo eskolako trikitilariakaz. Afaltzeko, 20:30ean, berakatz-zopea egongo da. 21:00etan, Lehian taldeagaz erromeria egongo da plazan eta ostean Oihan Vega dj-ak luzatuko dau jaia gaua ondo sartu arte.



IGORRE

Gazteguneko proiekturako lizitazioa onartu dau Igorreko Udalak

Erredakzinoa

Gaztegunearen proiektua Estudio Torre Elorduy enpresek egingo dau eta 78.287 euroko aurrekontua izango dau. Urri lehenengoko osoko bilkuran esleipena aurea eroatea onartu zan EH Bilduren aldeko 5 botogaz eta EAJ-PNVren 4 abstentziaz.

Gaztegunearen proiektua fase barri baten sartu da holan, au-



rrerapausu garrantzitsua emonez. Gaztegunearen proiektuari hasikera emoteko, lehenengotik prozesu parte-hartzailea abiatu zan, gazteen ikuspegia eta beharrik ezetuteko eta ostean, Gaztegunea kokatuko dan eremua erosi zan, institutu eta eskolearen ondoan. Pandemia dala-ta hartutako neurriakaz, prozesua eten eta atzeratu egin zan.

Gaztelekua 12 eta 16 urte bitarteko gazteek erabiliko dabe eta edade tarte horretako gazteek parte hartu eben diseinuan. Diseinuaren ostean, proiektua egin zan eta gero obrak egingo dira.

Illart Gumuzio Igorreko alkatearen arabera, "Gaztegunearen proiektu eraldatzailea izan behar dau, nerabe eta gazteak erdigunera ekariko ditutana, Igorre biziteko eta herriaz gozatzeko aukera barriak eskaini eta gizarte moduan behar-beharrezkoak doguzan balioak landuteko aukerea emongo deuskuna".

ARTEA

Germinador Social Lehiaketara aurkeztu dau bere proiektu energetikoa Basoa etxeak

Som energia eta Coop57k antolatutako lehiaketea da Germinador Social. Seigarren edizino honetan, 3 kategoria dagoz; Komunitate energetikoak, Pobrezia energetikoa eta Transizino energetikoa, hain zuzen be.

Erredakzinoa

Basoak lehiaketara aurkeztutako proiektua hirugarren kategorian dago. Proiektu irabazlearen tzako 6.000 euroko saria dago eta jenteak gehien bozkatutako proiektua izango da irabazle. Basoaren proiektuaren alde egiteko, urri bigarrenaren 9a baino lehen emon behar da botoa <https://vota.somenergia.coop/index.php/72022?newtest=Y...> estekan. 2021ean Energiaren Mahaia sortu eban Basoako Logistika Batzordeak, burujaubetasun energetikoa baliabide barritagarriakaz lortzeako asmoz eta proiektuak, etxerako energia hornidura jasangarria ziurtatzea bilatzen dau. Lehiaketara aurkeztutako proiektuaren helburua, baliagarri barritagarrien bidez, etxean behar dan energiaren %80 lortzea da. Horretarako, egongelako roket berogailurako eta egur galdarako, Arratia bailarako basoetako egurra erabiliko dabe eta elektri-



zidatea sortzeako teilatu gainean plaka fotovoltaiakoak ipini dabez. Sariaren 6.000 euroakaz, Basoak instalazino fotovoltaiako ordaindu gura dau; 4.000 euro ingurukoa. Baita, egur-galdara eta etxeko berokuntzearen eta ur bero sanitarioaren instalazino konektetako 1.000 litroko inertzia-tanke be; 2.000 euro ingurukoa.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Euskaraldian izena emoteko epea zabalik dago



Erredakzinoa

Euskaraldiaren hirugarren edizinoan Ahobizi edo Belarriprest moduan izena emoteko epea zabalik dago. Zemendiaren 18tik abenduaren 2ra izango da Euskaraldia. Helburua, euskerearen erabilerea handitzea da, hiztunen ohituretan eraginda. Izena, Euskaraldiaren webgunean emon

behar da. Ahobizi moduan izena emoten dabenek, lehenengo berbea euskeraz egiteko eta euskerea ulertuten daben guztiakaz euskeraz egiteko konpromisoa hartzean dabe. Belarriprest moduan parte hartzean dabenek, barriz, eurek ebatziko dabe nogaz egin euskeraz, baina euskerea dakienei eurekaz euskeraz egiteko eskatuko deutsee.

DIMA

Dimak proiektuen eragin linguistikoa ebaluauko dauan ordenantzea onartu dau

Urri lehenengoaren 21eko bilkuran, Dimako Udalak, ELE Eragin Linguistikoaren Ebaluazino apliketako ordenantzea onartu eban. Mota horretako ordenantzea onartuten dauan lehen udala izan da Dimakoa.

Erredakzinoa

Ordenantzea onartuta, herriko plan eta proiektuei jarraipen sistematikoa egingo jakie, eta, horretarako, eragin linguistikoa ebaluetako batzordea izentau eta batzorde horren egitekoa zehaztu dabe. Ordenantzan UEMAK landutako metodologia barneratu da. Dima, UEMako udalerria eta arnasgunea danez, bertako urri-antolamentuari eta turismoari lotutako planetan ELE aplike-teaz gainera, bestelako plan eta proiektuetan be ebaluau ahal izango da hizkuntza inpaktua: merkataritzagune handiak eregitako proiektuetan; etxebitzizen eraikuntzeagaz lotutako plan guztietan; aisialdiari lotutako plan eta proiektuetan; eta zerbitzu ekipamentuak eregitako proiektuetan, besteak beste. Holan, herrian garatuko dan plan edo proiekturen batek hiz-

kuntzearen egoeran inpaktu negatiboa izango dauala ondorioztatu ezker, hainbat neurri zuzentzaile edo aringarri aplikau ahal izatea aurreikusten dau ordenantzeak: esaterako, proiektuen tamaina murriztea; tokiko beharretara egokitutako ekipamentu zein zerbitzuak aurreikustea; bisitari kopuru jasangarria sustatzea, eta enpresakaz komunikazino eta kontratazino erispideak finkatzea euskereari lehentasuna emoteko.

ARRATIA

Berbalagun taldeak hileon hasiko dira

2022-2023 ikasturteko Arratiako Berbalagun taldeak hile honetan hasiko dira geratzen. Areatzan, Igorren eta Lemoan batuko dira euskerea praktikau eta euskeraz biziteko.

Erredakzinoa

Berbalagun ekimenaren euskerazko mintzapraktikak debalde dira eta hainbat jarduera desbardinatarako aukerea emoten dabe: mintzataldeak, familia ekintzak, txangoak, tailerrak, mintzodromoak, lehiaketak, berbaldiak, medi urtekerak eta as-tegoienpasak, beste batzuen artean. "Proiektua adin guztietako jentearentzat pentsautu dago. Gainera, hamaika abantaila dagoz: deskontuak, opariak... Hilero-hilero 10 sari-kutxa zozketatuko doguz, esaterako" di-noe AEK-koek euren Facebookean. Ordugei aukerea zabala da eta tabemetako ohiko taldeez gainera, beste talde batzuk badagoz, paseo taldea eta gurasolagun taldea tartean.

Izena arratia_berbalagun@aek.eus helbidean, 662 199 033 telefonoan edo Igorreko Kubulu Euskaltegiaren bertan emon daiteke.

Dirulaguntzak eskatzeko epea zabalik

Hilaren 19ra arte egin daiteke euskera ikasteko dirulaguntza eskaerea Igorren. Euskaltegiaren izena emonda euki behar da eta dirulaguntzea jasoteko beharrezkoa da HABEn be

dirulaguntza bera eskatzea. Beste mailakoek ez bezala, 0 mailakoek ez dabe dirurik aurreratu behar. Merkatarientzako ikastaroak debalde dira asteen bitan 14:00etatik 16:00etara. Informazino gehiago behar izan ezker, Udaleko Euskera Zerbitzura jo, euskera@igorre.net edo arratia@aek.eus helbideetara mezua bialdu edo 94 685 25 18 eta 94 631 56 57 telefonotara deitu daiteke.



ARRATIA

Andra etorkinen arteko sareak sortzeako ikastaroa izango da Jabekuntza Eskolako lehenengoa

Erredakzinoa

Domeketan batuko dira hama-bostero Areatzako udaltxean, urri bigarrenaren 16an hasita, goizeko 11:00etatik 13:00etara. Johana Muñoz izango da trebatzailea. Arratian bizi diran andra etorkin guztiak dagoz konbida-

tuta, guztien artean sareak eta aliantzak sortzeako. Migrazino prozesuak, lanerako eta biziteko eskubideak, sufridutako indarke-riak eta eskura dituen baliabideak landuko dira, besteak beste.

Perretxiko ikastaroa

Urri bigarrenaren 20an hasita,

eguenetan, perretxiko jangarriak zeintzuk diran ikasi, batu eta prestatzeko ikastaroa egongo da Lemoako Kulturgunean, Enkarna Delgado eta Marta Miramonen eskutik. Sei saio izango ditu. Gehienez 12 personak hartu ahal dabe parte eta izena aldeaz aurretik emon behar da.

OPORRETAKO ARGAZKI LEHIAKETE

Xabier Iturriagak irabazi dau lehiaketea

Areatzako Xabier Iturriaga Murelagak Saloun abuztuan ateratako *Correfocs* argazkia izan da aurtengo Udako Argazki Lehiaketako irabazlea. Aurten, urrun eta hurreko parajeak erakusten dabean 36 argazkilarik ateratako 77 argazkik hartu dabe parte lehiaketan. Amaitu barri dan udako momenturik gogoangarrienetako batzuk jasoten dabez argazkiok eta hona dakarguz batzuk bizi izandakoaren lekukotasuna emoteko.




Ametsak salto batera. Argazkia: Imanol Agirre.



Laga. Argazkia: Inma Valiente.



Zarautzen. Argazkia: Aitor Arnaiz.



Denia. Argazkia: Libe Ormazabal.



Copacabana (Bolivia). Argazkia: Garazi Santos.



El Palmar hondartza. Argazkia: Jose Atxa.



Begien ikuspegien oparia. Argazkia: Miren Begoña Idigoras Mugerza.



Fitz Roy. Argazkia: Maialen Gaztelu.

Salaketarako lekua be izan dai-
teke Udako Argazki Lehiaketea
eta zikinkeriaz betetako Arra-
tia errekearen argazkia bialdu
deuskue June eta Ekaitz Atu-
txak, Izei Petralandak eta Txaber
eta Iradi Asensiok. Argazkiagaz
batera bertso honeek:

**Uda arratsaldean
eki borrheroa,
Kenduko ahal dugu errekan
bustiz beroa?
Bilatu nahi genuen
gaurkoz abaroa,
kaka topatu dogu
bertan esperoan
Zelangoa izingo ote da
umeon geroa...**

**Plastiku, poltsa, burdin
edo freskagarri,
hauek ez dira inon
ez oroigarri...
Plana aldatu dogu,
ta ezetz igarri?
Azkar pilatu dogu
zakar ugari...
Aldatuko al diogu
plana munduari?**



Aldamin. Argazkia: Mikel Amuriza.



Tximeleta eskuan eta ibili munduan. Argazkia: Xabier Iturriaga.



Bled. Argazkia: Goiatz Ateaga.

Onetako Herri Ikastetxeak

Gure

ikastetxeak

Euskalduna
kalidadezkoa
herrikoia


JB Eguzkiza Meabe HI Tel.: 94 631 32 28 Lemoa	Ikastola Arratia HI Tel.: 94 428 78 15 Artea
Ugarana HI Tel.: 94 631 55 32 Dima	Arratia BHI Tel.: 94 428 79 34 Igorre
Zubialde HI Tel.: 94 648 06 82 Zeberio	Areatzako Herri Eskola Tel.: 94 673 90 93 Areatza
Zeanuri HI Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri	I. Zubizarreta HLHI Tel.: 94 673 60 22 Igorre

Haur Hezwuntza
Lehen Hezwuntza
Dorrigorrezko Digarren Hezwuntza
Datzilergoan
Hezwuntza Zinloan

2 urtatu 13ra

MENDIA

Lemoatx Trail mendi lasterketan izena emoteko epea zabalik dago



Erredakzioa

Zabalik dago zemendiaren 20an jokatu dan Lemoatx Trail lasterketearen seigarren edizioan parte hartzeako izena emoteko epea. Ibilbide bi egongo dira: luzeak 24,2 kilometro ditu eta 1.350 metroko desnibela; labu-

rrak, barriz, 16,4 kilometro eta 800 metroko desnibela. Mendi martxa bi be egongo dira. Batak lasterketa luzearen ibilbide bera izango dau eta besteak, Lemoatx Txikik, 8 kilometro izango ditu familiar egin ahal izateko. Izena <https://inscripciones.kronoak.com> webgunan emon behar da.

MENDIA

Euskal Mendizale Federazinoko txapela jantzi dau Onditz Iturbek

Erredakzioa

Urri lehenengoaren 17an, Atxondon jokatu zuen Sorginen Lasterketan garaipen bikotxa lortu eban Iturbek, lasterketea irabazi eta Federazinoko txapela Igorrerara ekarrita.

Atxondoko Axpe auzotik hasita, Anboto igon eta bajatuta jokatu zuen Sorginen Lasterketaren hamabosgarren edizioa, 300 bat korrikalariren parte-hartzeagaz. EMFren txapela be egoan jokoan, Euskadiko Mendi Lasterketen Txapelketea. Ibilbideak 21 kilometro eta 1.700 metroko desnibela izan eban eta irabazle biak

izan ziran Aiaramendi Korrikalariak Kirol Klubekoak: Onditz Iturbek eta Gontzal Murgoitio. Gainera, korrikalari igorreztarak andren errekorra apurtu eban, hamabost minutu laburtuta.

Iturbe ordu bi, hogeitatu eta 45 segundotan bueltau zuen helmugara, bigarrenari ia lau minutuko aldea aterata, Ainara Urrutiar hain zuzen be. Lehenengo kilometroetan lehia estuan ibili ziran biak, Urrutia lehenengo postuan be egon zuen eta. Halanda be, aurrera egin ahala igorreztarak alde gero eta gehiago atera eta bakarrik bueltau zuen Axpeko helmugara.

PENTATLOIA

Aitzol Atutxak ezin izan eban Euskal Pentatloiko finala jokatu

Erredakzioa

Urri lehenengoaren 24an jokatu zuen V. Euskal Pentatloia finala Azpeitian. Aitzol Atutxa hau jokatzeko sailkatuta baegoan be, atzen orduan erretiratu zuen lesio bat dala-ta. Sareetan "sekula hartu dodan ebatzi gatzena" izan zala adierazo eban finala jokatu baino ordu batzuk arinago, eta begituri baieztatu deus lesio bat izan zala erruduna eta arin errekupeetea espero daua.

Atutxa barik, gizonezkoen pentatloia Andoni Iruretagoienak, irabazi eban eta Nerea Arrutik andrazkoena. Izeta VI.ak 31:36ko denporea behar izan eban proba

guztiak amaituteko: 100 kiloko harriari hogeitatu jasoaldi, giza proban 400 kiloko harriagaz bina plaza, azkoran hiru kanaerdiko, 50 kiloko txingakaz sei plaza eta korrikan hiru kilometro.

Finalerako bidea

Finalaurrekoan, Atutxak proba bardinak egin behar izan ebazan, baina laburragoak, finalera ailegetako. Orduan, Atutxak baino lan hobe egin eben Xabier Zalduak, Andoni Iruretagoienak Izeta VI.a, Julen Gabirondok eta Ioritz Gissolak Zelai IV.a. Bere atzetik geratu zuen Joseba Otaegi. Tolosan jokaturako lehen kanporaketan be, maiatzean, Atutxa laugarren



izan zuen, hamairu probalariren arteko lehian.

IGORRE 2022

GARBEEKO

XLII. AZOKA

URRIAK 9 OCTUBRE



12:00ETAN HERRI KIROL
ERAKUSTALDIA:
MIKEL AGIRRE ETA
UNAI OSA



IGORREko
Udala



bbk

PELOTEA

San Mateo Torneoko txapeldunordea izan da Amaia Aldai

Erredakzioa

Olatz Arrizabalaga eta Andrea Capellanek eroan ebezan txapelak, finalean Amaia Aldai eta Itxaso Erasuneri 22-20 irabazita.

Urri lehenengoaren 24an jokatu zan, Logroñoako (Errioxa) Adaraga frontoian Master Laboral Kutxa San Mateo Torneoaren finala. Aldai eta Erasunen aurkariak Arizabalaga eta Capellan izan ziran eta tensino handiko partidua atzen honeek irabazi eben, 22-20. Halanda guzti, pozik agertu da dimoztarra bai egindako torneoagaz bai finalagaz: "Dana emon genduan".

Aldaiak BEGITU azaldu deuta-
nez, hasikera hobea emotea
faltau izan jakon bikoteari irabaz-
teko: "Itxaso Erasuneri konfiant-
za apur bat gehiagogaz sartzea
faltau jakon, eta biori partidua
arnaituten jakitea". Izan be, he-



meretzi tantuetan bardinduta izan eben partidua, "ez genduan partidua biribildu", adierazo eban dimoztarrak.

Hiru Hiriburuak

Urri bigarrenean zehar, Amaia Aldai Hiru Hiriburuak Txapelketea jokatu zen egongo da Nora Mendizabalegaz batera. Lehen partidua hilaren 2an jokatu eben Mirian Arraiza-Enara Gaminde bikotearen kontra eta 22-11 irabazi eben.

jatsiera postuetan dago Arratia B. Andrazkoen Arratia A taldeak 4 partidu jokatu ditu daborduko. Bakarra irabazi dau. Atzen partidua hilaren 1ean jokaturakoa 0-2 galdu eban San Ignacio taldearen kontra Urbietan. Sailkapenean 3 puntugaz jatsiera postuetan dago.

Andrazkoen B taldeak be hila-
ren 2an hasi eban ligea Sestao
River taldearen kontra etxetik
kanpo. BEGITUren edizinoa zarra-
tzerako orduan partidua jokatu
barik egoan oindino.

Lemoako Harrobi

Hasikera itzela emon deuta Le-moako taldeak ligeari. Igaz mai-laz igoteko puntuan egon ziran eta aurtan (BEGITUREN edizinoa zarratu orduko) jokaturako parti-du biak irabazi ditu. Informazino eguneratua *begitu.eus* webgu-nean dago.

MENDIA

Zeanuritik Pagomakurrera autobusa egongo da Gorbeia Suzienen

Goizean goizetik hasita Gorbeia Suzien lasterketea ikusi gura dabenak gora eroateko izango da zerbitzua, Pagomakurre autoz betetea ebitetako. Jente asko espero danez, trafikoari jagokonean be aldaketa batzuk egongo dira. Karpotik Zeanurirako errepidea ebagita egongo da 08:00etatik 16:00etara Zeanurirantzako bidean, beraz, Areatzatik Zeanurira kamino jeneraletik joan beharko da. Zeanuritik Areatzarantza oster, bide hori erabiliko da eta errail bat egongo da kotxeak aparketako. Bizkaibusek be holan egingo dau joan-etorria: Zeanurirantza kamino jeneraletik eta bueltea ohiko bidetik. Taxi zerbitzua be egongo da.

Erredakzioa

Lehenengo lasterketea, Skymars-terseko finala, 09:00etan urten-go da eta ordu erdi beranduago, 09:30ean, Skyrace, Gorbeia Suzien 32 kilometroko lasterketa nagusia. Bertan 600 lasterketarik hartuko dabe parte.

Euskal Herriko eta nazinoarteko mendi lasterkaririk onenak izango dira Zeanurik. Han egongo dira laieztatu dabe Linndsay Webs-terrek, Iris Pessyk, Denisa Drago-mirrek, Marcela Vasinovak, Onditz Iturbek, Maite Maiorak, Martina

Cumerlatok, Oihana Azkorbebe-
tiak, Kalie Mc Crystalek eta Ame-
lie Bertschyk. Eta gizonezkoetan,
Raul Butacik, Damien Humbertek,
Luka Kovacicek, Jan Margaritek,
Raul Ortizek, Ander Iñarrak, Loic
Robertek eta Nico Molinak.

11:00etan, Gorbeia Suzien 21 kilometroko lasterketak abiatuko dira. Euskal Herriko Kadete, Gazte eta Junior txapelak be jokatuiko dira.

Sari banaketak 14:30etan izango da orokorra eta 20:00etan, Munduko Kopakoa.

Merkaduak, janaria saltzeako

postuek eta musikeak ipiniko dabe jai giroa herrian. Egitarau osoa BEGITUren agendan dago.

Ana Zamoranoren berbaldia

Lasterketak dirala-ta, egueanean hilak 6, 19:00etan, Ana Zamorano munduan zehar bizikletaz ibilten dan zinemagile, argazkilaria, editore eta abenturazaleak berbaldua emongo dau Igorreko Kultur Etxean. Zamoranok Europa eta Ipar Amerikan zehar bidaiatu dau familiagaz eta El Salvadorren, Nikaraguan, Gambian edo Ugandan bolondres lanak egin ditu.



HIGIEZINAK ETA ARKITEKTURA

Beltza dezagur jabetza

- Salmentan zein alokatuan
- Lurak (arabiztasun, landak, basak...)
- Etxedizitak (sotoak, baserriak, etxak...)
- Garaioak
- Lokal komertzialak
- Pabilioiak...
- Balnearioak

Balera dezagur punita

- Irakin berak erakitzeko
- Irakurketa
- Arkitektura-proiektuak
- Baita diseinua
- CEE eta IIE-ak
- Hirigintza ahozkiariz
- Negotioak irekitzeko
- Kudeaketa



arratia
INMOBILIARIA

Euzko Lehen Unibertsitatea | Agintu 22, 48001 - Bilbo
 Agintuak: 94 421 51 91 - 424 96 31 31
 E-mail: arratia@arratiainmobiliaria.com
 Web: www.arratiainmobiliaria.com
 Arratia Inmobiliaria, S.L. | CIF: B22.101

ASESORÍA
Gorbeialde
Juridika • Fiskala • Lanakoa • Kontularitza
Askatasun 26, 1B 48143 Areatza
Tfnoa: 94 673 92 93 Faxa: 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

Kili~Kili
Ameyo eta Puztuturaz
Lehendakari Agirre 10 - IGORRE (Biskaiak)
Tel.: 94 473 43 81

Olaetxe                 




amorrortu
taberna - jatetxea - ostata


OSTATA
638 712 523

Eubiete 1., • 48330 LEMOA • Biskaia
www.alojamientolemona.com
info@alojamientolemona.com

ANTZEZLANA

Gilkitxaro antzerki taldeak *ETAren agiri bulegoa* antzeztuko dau Kotxepin Kultur Etxean

Erredakzinoa

Urri bigarrenaren 8an, 19:30ean, Gilkitxaro antzerkiak *ETAren agiri bulegoa* antzeztuko dau Kotxepinen. Galder Perez eta Ane Zabalak antzezlanak sortu eta zuzentzeaz gainera, aktore lanak be egiten dabez. Metraileta baten erritmoa daukan komedia eta "usaintzeko teatro" moduan definitutakoa dabe antzezlanak, 2020an estreinau zan. Bulego baten kokatuta, protagonistak Petral Bilbao eta Makal Xiberu dira. Agiri bulegoko Petral Bilbaoren lana *ETAren* zigiluak banatzeko da eta Makal Xiberu bulegora doa eginkizun sekretu batez. Erritmo biziko komedia honetan, ikusleagoak ez dau arnasa hartzeako be denporarik izango.



IKASTAROAK

Arantzazun eta Diman be hileon hasiko dira udal ikastaroak



Erredakzinoa

Urri bigarreneko lehenengo astean hasi dira ikastaroak Arantzazun eta Diman. Ikastarootan, ariketa fisikoa eta eskulanak egiteko aukerea emoten da Diman, eta ariketa fisikoa eta sukaldaritza jarduteko Arantzazun. Arantzazuk, ikasturte honetan lehenengoz eskainiko dau *Txi*

kung ikastaroa. *Yoga*, *Sukaldaritza*, *Mantenimenduko gimnasia*, *Entrenamendu funtzionala* eta *Spinning* ikastaroek osotuten dabe eskaintzea. *Txi kung* diziplina txinatarrak "osasuna era integralean hobetuteko osotuten daben praktikak jorratzen ditu; gorputza, burua eta energia kontuan hartzean dabenak. Ariketa leunak eginez, arnasketa eta arreta osoagaz batera, gure osasuna eta bizi energia hobetzen doguz. Aldi berean, emozioak orekatzeko lagungarria be bada" dinoo Udaletik. Dimako eskaintzea 2022-2023 ikasturterako, *Pilates*, *Luzaketak*, *Yoga*, *Entrenamendu funtzionala*, *Eskulanak*, 3. adinean ariketa fisikoa eta *Zunba* ikastaroek osotuten dabe. Ordainketea hilero egin behar da eta ikastaroen prezioa, hilean 30 euroren bueltan dago Diman erroldatuentzat eta 40 euroren bueltan Diman erroldatuta ez dagozanentzat. 16 urtetik gorakoentzako dira.

JAIALDIA

Sei taldek joko dabe Basoa Gara Elkartasun Musika Jaialdian

Helburu bikotxagaz, Basoaren autofinanziazinoa sendotzea eta proiektua beste espazio soziologikoetara zabaltzea, musika jaialdia antolatu dau Basoak hilaren 15ean, 14:00etatik 21:00etara.

Erredakzinoa

Bertan, kontzertua eskainiko dabe Kaserna, Lentejas, Foterie, Puro hasta luego, Kutxaratxas eta Niño Feriante taldeek. Musika estilo desbardinak ditue Basoa Gara Elkartasun Musika Jaialdian joko daben taldeek. Kaserna, 2020an sortutako taldea da eta egiten dauan musikeak, rock, reggae, funk eta musika elektronikoaren eragina dauka. Ahotsetan, hip-hop estiloa da nagusi. Lentejas taldea, 2018an sortutako belaunaldien arteko punk banda transfeminista bat da. Arteaztarrek osotutako Foterie taldeak be joko dau Basoan. Danilok, gitarrea eta ahotsa; Antonek, bajua; Juanek, bateria; eta Mikelek, gitarrea eta armonikea, osotuten dabe taldea. Taldearen izena euren Arteako etxearen izena da; izan be, antxina fotea egiten zan etxe horretan, ogi mota bat. Arteakoa be bada Puro hasta luego taldeko kideetako bat: Ilia Mitxelena, hain

zuzen be. Taldeak "kantautore musikea, lagunez inguratua" egiten dau, ikuspegi feministatik umorez betetako berbakaz. Kutxaratxas talde gasteiztarrek, bluegrass, rumba eta soinu irlandarrak nahastuten ditu. Kartela osotuten dauan Niño Feriante bikoteak, barriz, inprobisazinoz eta poemaz betetako kontzertuak eskaintzen ditu perkusinoaren, gitarrearen, biolearen eta bateriaren laguntzeagaz. **Basoa** Basoa, giza eskubideen defendatzaile eta ekintzaileen arteko komunitate solidarioa da. "Etxe bizi bat eregi gura dogu, pentsamentu kritikoa praktikatik eraldatu gura dauana, bizitza ona eta bizikidetzak horizontala, feminismoa, eko-sozialismoa, giza eskubideen defentsa eta abar sustatzen dituana". Eta utopia hau aurrera aterateko esku, idea, baliabide eta amets konpartidu ugari behar ditue. "Horregaitik, musika jardunaldi bat antolatu

dogu, ez bakarrik gure autofinanziazinoa sendotuteko, baita, gure proiektua, kultura moduko ekintza arloetatik, eremu soziologiko desbardinetara zabaltzeko be". Bost euro balio dau sarrera sinbolikoak, baina hamar euroko sarrera solidarioa be erosi daiteke. Jaialdian, aldarrikapen mezue tarako eta giza eskubideen defendatzaileen lekukotasuna entzuteko aukerea be egongo da.



MUSIKALA

Arrakasteagaz hasi dau birea Gontzal Mendibilen *Hazia* musikalak

Erredakzinoa

Arrasateko Amaia Antzokian estreinau zan Gontzal Mendibilen *Hazia* musikala urri lehenengoaren 17 eta 18an eta txalo zaparradea jaso eban estreinaldi bietan. Mendibilen zuzendaritzapean, 10 abeslarik, 12 aktorek, 11 musikarik, 12 jantzarik, Easo Abesbatzak, Easo Eskolaniak eta Goikobalu Arrasateko Abesbatzak egin eben musikalaren estreinaldia. Birako hurrengo zitea Arriaga Antzokian izan zan urri bigarrenaren 29an Iruñean egongo da, zemendiaren 26an Donostian, abenduaren 17an Gasteizen eta abenduaren 30ean, Markinan. Musikala Arrasateko kooperatiben ereduak sortu eta bultzatu eban personearen aurkezpen artistikoa da. Arizmendiarieta sortu zanetik hasita, seminarioan, 1936ko ge-

rran, enpresen berbikundean eta 1941ean Arrasatera heldutakoan egin ebanaren proiektu unibersala kontetan dau. Gertakari eta egoera errealetan oinarrituta dago eta eszenaratzea, koreografiakaz eta ekintzen ilustrazinoakaz lagunduta. *Hazia* 16 eszenaz eta 22 kantuz osotuta dago. Lehenengo esteinaldian edadeko jentea nagusi izan bazan be, bigarrenen, gazte gehiago egon ziran. Izan be, Mendibilen arabera, sano modu garaikidean erakusten dauz Jose Maria Arizmendiarietaren pentsamentua, bere bizitza eta obrak. *West Side Story*-n moduko eszena batek, musika estilo ugariak, salsa eta boleroa, tartean, eta artista gazteek emoten deutesie estilo hori, balore unibersalak gazteei heldu arazoteko. "*Hazia* musikalak erantzunak eskaintzen deusez ikusleei, eta liluragarria da bere ekintza emozionalagaitik.

Arizmendiarietarena, bertako historia bizi eta unibersala da. Gizon haren sentimentu kooperatiboa *Hazia* musikalean islatzen da, "Ametsak eraikitzen" lelopean eta haren aldarrikapenagaz. Beti Aurrera!". Oin dala 3 urte hasi zan Mendibilan hau prestatzen. Arizmendiarietaren testuak poema bihurtu eta gero musikatu. Baina musika talde lanaren emaitza dala azpirmarratu eban Mendibilek Bilbon emondako prensaurrean. Aritz Salamanca da koreografoa eta Jose Luis Canal musika moldatzailea. Aktore lanetan, Arkaitz Gartziandia eta Ainhoa Tabuyo dagoz beste batzuen artean. **CDa, ezkurra eta ardaoa** *Hazia* musikaleko 19 kantuz hornitutako CDa, haretx baten *hazia* dan ezkurra eta botila bat ardao bananduten jakie ikusleei.

ONDAREA

Natura eta kultura ondarea ezetuteko ibilbidea, tailerra eta museora bisitak antolatu dira

Ondare Iraunkorra da urri bigarrenean izaten diran aurtengo Ondarearen Europako Jardunaldien gaia. Gaiak, gure kultura ondarea babesteko zer pausu emon daitekezan aztertzerak konbidatzen ditu parte-hartzaileak. Areatzak, Dimak eta Zeberioak hilaren 15, 22 eta 29rako hurrengo hurrengo, antolatu ditue Ondarearen Europako Jardunaldien testuinguruko ekintzak.

Erredakzinoa

Otzarretara ibilaldia

Areatzak Parketxeak ibilbidea antolatu dau urri bigarrenaren 15erako. Saldropotik 10:00etan urtenda, Otzarretara joango dira partaideak eta han, Juanjo Hidalgo historialariak pago motzez gainean jakin beharrekoak azalduko dauz. *Pago motzak, iraunarazi beharreko altxorra* izeneko jarduera honetan parte hartzeako izena emon behar da *gorbeia.parke.naturala@bizkaia.eus* helbidean edo 94 673 92 79 telefonoan.

Ondarea zentzumen guztiakaz gozatzeko tailerra

Diman, Udalak eta Antzasti Museoak, *Dima 5 zentzumenekin* izeneko tailerra antolatu dabe hilaren 22an, Dimako inguru naturalaren edertasuna gozatzeko. "Natureak eta bere fenomenoek herriko ondare naturala osotuten dabe: bedartzak, basoak, hatx-zuloak, errekek, haizea, euria, ekatxa... Baina herritarren esku hartzeagaz eraldatu dan naturea be bada ondarea: ogia, gaztaia, txarrikiak, eztia, txakolina... Esperimentazioan oinarrituko dan tailer honetan, bost



Otzarreta.

zentzumenakaz jolastuko gara eta Dimako ondare jasagarriaren balioa nabarmenduko dogu" azaldu dabe. Tailerrean, Diman bizi diran profesional eta artistek sortutako ikus-entzunezkoak erabiliko dira, baita egun lanean diharduen bertoko ekoizleen janari-edariak be. Tailerra, Antzasti museoan izango da 11:30ean eta izena *harrera.dima@bizkaia.org* helbidean edo 94 631 57 25 telefonoan emon daiteke.

Errementari Museora bisitaldia

Errementari Museora bisitea antolatu dau ADR Gorbeialde LGAK errementariak itxitako ondarea jakitera emoteko. Urri bigarrenaren 29an, 11:00etan izango da eta izena *turismo@gorbeialdea.com* helbidean edo 94 612 26 95 telefonoan emon daiteke.

"Oker handia da pentsetea Bizkaiko elizateetako landa eremuko herritar guztiak nekazariak edo artzainak zirala, eta, egia esateko, biztanleriaren ehuneko nabarmen batek beste jarduera batzuetan lan egiten eban. Zeberioko haranean, esaterako, burdin ekoizpenak eskatzen ebazan olagizonak, ikazkinak eta garraiolariak, eta errementariak, produktu desbarrinetan espezializauak, burdin barrak era guztietako lanabes bihurtzen saiatzen ziran. Errementari Museo interesgarriara egingo dogun bisitaldiak hainbat mendez gure haranetan egon zan errealdade ha ulertuten lagunduko deusku" dinoe antolatzaileek.

IKUSKIZUNA

Joseba Sarrionandia eta Ines Osinaga Igorren

Erredakzinoa

Joseba Sarrionandia idazlea eta Ines Osinaga abeslaria Igorreko Lasarte Aretoan izango dira urri bigarrenaren 14an, iluntzeko 20:00etan, *Katuen kontuak* ikuskizun poetiko musikala eskaintzeko. Goizean beste saio bat eskainiko dabe Arratia Institutuko ikasleentzat.

Katuen kontuak oin dala hamar urte Joseba Sarrionandiak Habanan sortutako dozena bat testu dira. Ines Osinagaren ahotik, trikitixea edo ukeleleagaz lagunduta entzungo dira testuok. Itziar Garaluce artista bisuala batu jakie taldera eta emonaldia irudiz jantziko dau.

Sarrionandia eta Osinaga

Sarrionandia euskal literaturako idazle ezagunenetakoa eta irakurrienetakoa da. Genero guztiak landu ditu. Bere lan batzuk dira *Kartzelako poemak*, *Atabala eta euria* (Espainiako Kritika Saria, 1986), *Lagun izoztua*, (Espainiako Kritika Saria 2001), *Kolosala izango da eta Moroak gara behelainoan*; batzuk aitatzearren.

Osinagak, ibilbide luzea egin dau Gose taldeagaz. Trikitixea musika elektronikoagaz batzean aitzindaria izan da.

2022an, Joseba Sarrionandia eta Ines Osinaga alkarregaz hasi dira kontzertu-ikuskitzuna eskaintzen herriz herri.

DUNBA

Erreka garbiketea

Enara Gallastegi Barrenetxea
4. DBHko ikaslea

Baso Biziak Plataformak errekek garbituteko egin dauan deialdiaren barruan, urri lehenengoaren 24an, zapatuan, Igorreko erreka garbituteko batu ginan, bai Igorreko jentea eta baita Arratia BHlko ikasleak be. Arratiako beste hainbat herritan be burutu zan ekimena. Igorren hogeta bost lagun inguru alkartu ginan.

Goizeko bederatzia eta erdie-tan Igorreko errugbi zelaian batu ginan eta 2. batxikoek ikasbidairako dirua lortzeako gosaria saldu eben. Gosaldutik ondoren, Illart Gumiuziok, Igorreko alkateak, zaborra



batzeako zelan antolatuko ginan azaldu euskun. Gero errekan eta inguruetan bizi diran animaliei buruz berba egin euskun. Azalpenak entzun ostean guneetan banandu eta lanean hasi ginan. Kiñu Gaztetxetik hasi eta futbol zelairainoko zatia garbitu genduan, errekearen alde bietatik. Amaitu genduenan, hamabiak aldera, zaborra sailkatzen hasi ginan. Plastikoa izan zan gehien batutako zabor mota baina beira eta metala be batu genduzan.

Lan guztia amaitu genduan frontoira joan ginan, kopautxoa prest egoan eta. Erreka hasieran baino askoz garbiago geratu zan. Baina ingurugiroaren



aldetik guztion erantzukizuna da holango ekimenak egiteko beharizanik izan barik errekek garbi mantendutea. Dana dala, behar izan ezker, hor egongo gara gu laguntzeko prest.

AGENDEA

URRI BIGARRENAK 3
ARANTZAZU

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura Udal Liburutegia zabalik.

AREATZA

Ikasgela zabalik. Aste barruan 08:00retatik 21:00etara eta astegoienetan, 09:00etatik 21:00etara.

Hilaren 13ra arte, 15ean izango dan Euskal Jaiko bazkarirako txartelak salgai Areatzako tabernetan.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Arigune lez jarduteko, alkarte, establezimentu edo entidadeek, Euskaraldian parte hartzeako izen-emotea zabalik hilaren 30era arte www.euskaraldia.eus webgunean.

Zemendiaren 11ra arte, Beldur Barik Lehiaketara bideoak bialtzeko epea. www.beldurbarik.eus.

Berbalagunen parte hartzeako izena emon daiteke arratia_berbalagun@aek.eus helbidean, 662 199 033 telefonoan edo Igorreko Kubulu Euskaltegian bertan.

Euskaraldian ahobizi edo belarriprest moduan izena emoteko epea zabalik Euskaraldiaren webgunean.

Hilaren 7ra arte, Urtxintxa eskoleak Diman egingo dauan Aisialdi Begirale ikastaroan izena emoteko epea zabalik. Diman erroldatuatakoek udaletxean emon izena. 94 631 57 25.

BEDIA

16:30etik 19:30era, liburutegia zabalik, astelehenetik barikura.

DIMA

Hilaren 14ra arte, 19 eta 26an izango dan *Sukaldaritza osasuntsua* ikastaroan izena emoteko epea zabalik, andraizea@gmail.com helbidean edo 679 584 412 telefonoan.

IGORRE

09:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 20:30era, astelehenetik barikura liburutegia zabalik. Goizetan ez dago mailegu zerbitzurik.

08:00etatik 22:00etara ikasgela zabalik. Aurretik Kultur Etxera deitu behar da zitea eskatzeko 94 673 62 51 telefonoan.

LEMOA

08:00etatik 21:00etara, astelehenetik domekara Kotxepineko ikasgela zabalik.

16:30etik 19:30era, liburutegia zabalik astelehenetik barikura Kotxepin Kultur Etxean.

Urri bigarrenean zehar, Ganzabal Mendi Taldearen Argazki Lehiaketea.

Zemendiaren 20an jokatu ko dan Lemoatx Trail lasterketearen seigarren edizinoan parte hartzeako izena emoteko epea zabalik <https://inscripciones.kronoak.com> webgunean.

09:30etik 11:00etara, astelehenetan, ibilaldi gidatuak helduentzat Gudarien parketik urtenda. Izena emon 647 889 040 telefonoan.

11:00etatik 13:30era, astelehenetan, Oingabiz jarduera fisikorako orientazino zerbitzua Arraibin.

UBIDE

Gorbeia Parke Naturalak antolatuta, udagoien osoan zehar, mendi ibilbide autogidatua: Ubide-Eneabe-Bastelarra-Arralde. Ubide inguruko mendiak ezetuteko aukerea. Informazino gehiago 94 673 92

79 telefonoan edo gorbeia.park.naturala@bizkaia.eus helbidean.

19:00etan, yoga + mindfulness ikastaroa. Izen-emotea 629 260 402 telefonoan.

ZEANURI

Abenduaren 1era arte, Udalak antolatutako IV. Argazki Lehiaketarako argazkiak aurkezteko epea harrera@zeanuri.eus helbidean. Gaia: Zeanuri.

ZEBERIO

Zemendiaren 30era arte, III. Argazki Lehiaketan parte hartzeako aukerea. Gaia: baserriko lanak. Argazkiak udal webgunean horretarako berenberegi sortutako espazioan ipini.

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

URRI BIGARRENAK 4
DIMA

Indusiko jaiak. 12:00etan, mezea; ostein barauskarria.

URRI BIGARRENAK 5
BEDIA

17:30ean, Liburu-maleta ibiltaria Onditz

Mendizabalen eskutik liburutegian.

DIMA

18:00etan, Euskaraldiarako Dimako Herri Batzordearen bilera udaletxean.

19:00etan, Dimako II. Bardintasun Plana, herritarrakaz saio irekia eskolako kamanan.

IGORRE

19:00etan, Idoia Larrañaga osasun hezitzaile eta terapeutea eta Joseba Argintxona Filosofia eta Psikologia irakasleen berbaldia *Zelan aurre egin bildurrei ahalduntzea eta burujabetza berreskuratzeko/eskuratzeko?* Lasarte parkean. Aske Bizi Arratien-ek antolatuta.

LEMOA

16:00etatik 17:00etara eta 18:30etik 20:00etara, eguaztenetan, Oingabiz jarduera fisikorako orientazino zerbitzua Arraibin.

16:30etik 17:15era, eguaztenetan, Gazteak Aktibo, 1. eta 2. DBHko ikasleentzako kirol jarduerak kiroldegian. Izena emon 647 889 040 telefonoan.

17:30etik 18:30era, eguaztenetan Gimnasia gidatua hirugarren adinarentzat kiroldegian. Izena emon 647 889 040 telefonoan.



Godard-en pelikula bategaz bueltan da Igorreko Zinekluba

Jean-Luc Godard-en heriotzearen hilabete bat beteten dan egunean bueltauko da Igorreko Zinekluba, *Al final de la escapada* (*À bout de souffle*, 1960) zuzendari frantsesaren pelikuleagaz. Pelikula honek or-dura arteko narrazino kode guztiak apurtu, eta *Nouvelle Vague* mobi-mentuari hasikerea emon eutsan. Jean-Paul Belmondok eta Jean Se-berg-ek antzezten ditue paper nagusiak eta hainbat sari jaso ebazan pelikuleak; tartean, zuzendari onenari Berlinalen edo Frantziako zine kritikoen pelikula onenari saria. Urri bigarrenaren 13an, 20:00etan egongo da filma ikusteko aukerea Lasarte Aretoan.

Sinopsia

Michel Poiccard (Jean-Paul Belmondo) zinezalea da eta Bogarten jarrai-tzailea. Parisera joateko Marseillan auto bat lapurtu ondoren, poliziako motorzale bat hil dau gura barik. Baina egin dauanagaitik damutu ba-rik, aurrera jarraitzen dau. Parisen, lagun bateri dirua lapurtu ondoren, Patricia (Jean Seberg) gazte burges amerikarraren bila dabil. Patricia-k idazlea izan gura dau, eta New York Herald Tribune egunkaria saltzean dau Eliseoko Zelaletan. Bere ametsa Sorbonan matrikuletea eta egu-nen batean idaztea da. Michele-k ez daki polizia bere bila dabilala.

URRI BIGARRENAK 6
IGORRE

19:00etan, Gorbeia Suzienek antolatuta, Ana Zamoranoren *Mundua bizikletan zeharkatuz* berbaldia Kultur Etxean.

URRI BIGARRENAK 7
DIMA

Indusiko jaiak. 17:00etan, Briska Txapelketea; 19:00etan, txitxi-burduntzia; 21:00etan, Eingo taldea eta 22:00etan, txokolate jana.

ZEANURI

Gorbeia Suzien. 17:00etatik 20:30era, dorsal banaketea; 19:00etan, lasterketearen gaineko berbaldi teknikoa plazan eta 20:00etan, ikuskizuna.

URRI BIGARRENAK 8
BEDIA

10:00etan, Euskal Buztingitza Museora txangoa 18 urtetik gorako andrak.

DIMA

Indusiko jaiak. 12:30ean, Dimako Gazte Barri jantza taldearen emonaldia; 14:00etan, Baba Lapiko Lehiaketea; 14:30ean, bazkaria; bazkalostean bertsolariak: Gorka Pagonabarraga eta Ibon Ajuriagojeaskoa; 17:00etan, umeentzako ekintzak; 19:30ean, Berakatz-zopa, Tortilla eta Ogizko Tostada Lehiaketea; 21:00etan, Julen Axperen bakarriketea; 22:00etan, Jainaga eta Narbaizagaz erromeria; 22:30ean, txokolate jana eta 23:00etan, zozketea.

LEMOA

Ganzabal Mendi Taldearen astegoieneko urtekerea. Peña Ventosa (1.434 m) eta Cueto La Jontaneilla/ Agerino (1.351 m).

19:30ean, Gilkitxaro antzerki taldearen *ETaren azken agiri bulegoa* Kotxepin Kultur Etxean.

ZEANURI

07:30etik 09:00etara, dorsal banaketea; 08:45ean, Skymasters korrikalarien material ikuskapena; 09:00etan, Gorbeia Suzien Skymasters lasterketearen urtekerea; 09:15ean, Skyrace korrikalarien material ikuskapena; 09:30ean, Gorbeia Suzien Skyrace lasterketearen urtekerea; 10:45ean, 21 K korrikalarien material ikuskapena; 11:00etan, Gorbeia Suzien 21K eta Euskal Herriko Gazteen Txapelketak; 14:30ean, sari banaketak; 18:00etan, musika emonaldia: The Broken Brothers Brass Band; 20:00etan, Munduko Kopako sari banaketea eta 21:00etan, dj-a eta jaia.

ZEBERIO

07:30ean, Austarri Mendi Taldeak antolatuta, Zuberoara urtekerea astegoienean. Ahargo (609 m)-Kanbillu (660 m) Eirretzu (700 m)-Maidalena (795 m).

URRI BIGARRENAK 9
IGORRE

10:00etatik 13:30era Garbeko Azokea; 12:00etan, Mikel Agirrek eta Unai Osak herri-kirol erakustaldia.

17:00etan, zinea, *Marmaduke*; 19:30ean, *Bullet Train*. Lasarte Aretoan.

ZEANURI

Gorbeia Suzien. 11:00etan, umeen lasterketarako izen emotea; 12:00etan, umeen lasterketea eta 13:00etan, herri-kirolak umeentzako. Puzgarriak egongo dira goizean zehar.

URRI BIGARRENAK 10
BEDIA

16:30etik 19:30era, hilaren 21era

arte, San Martin eguneko bazkarirako (zemendiak 12) izen-emotea liburutegian.

URRI BIGARRENAK 14
IGORRE

16:30ean, Katiuska ta Katiluren *Gure jangela osasuntsuak* antzezlan eta merienda osasuntsua eskolako patioan. Guraso Elkarteak antolatuta.

20:00etan, Joseba Sarrionandia eta Ines Osinagaren *Katuen kontuak* ikuskizun poetiko-musikatua. Lasarte Aretoan.

URRI BIGARRENAK 15
ARANTZAZU

Sanfaustoak. 09:00etan, Arginatx Mendi Elkarteak antolatuta, Mugarri Bira; 14:30ean, baba jan herrikoia. Txartelak Herriko Tabernan eta Monteron. 10 euro nagusiak eta 5 euro umeak; 17:00etan, Inguma taldeagaz bazkalosteko kantu eta jantzak; 21:00etan, Olatz Txurruka dj-a Herriko Tabernako terrazan.

AREATZA

Euskal jaia. 10:00etan, nekazal eta artisau azokea; goizean zehar bertako produktuen dastaketea; 13:00etan, kalejirea Akelarre Grass Brass taldeagaz; 15:00etan, herri bazkaria frontoian; 18:00etan, Kuadrillen Arteko Herri Olinpiadak, Frakazuri Gazte Asanbladeak antolatuta; 19:00etan, kalejirea Arratiako Eingo eskolako trikitilariakaz; 20:30ean, berakatz-zopea; 21:00etan, Lehian taldeagaz erromeria eta ostein Oihan Vega dj-a.

Ondarearen Europako Jardunaldiak "Ondare jasangarria" lelopean, Juanjo Hidalgo historialariaren eskutik, Otzarretako pagadira bisitea, pago lepatuen historia jakiteko. Izena 94 673 92 79 telefonoan edo gorbeia.park.naturala@bizkaia.eus helbidean emon.

ARTEA

14:00etatik 21:00etara, Basoa Gara Elkartasun Musika Jaialdia. Kaserna, Lentejas, Foterie, Puro hasta luego, Kutxaratxas eta Niño Feriante taldeen kontzertuak. Basoa etxean.

IGORRE

Arratia Institutuko 50. urteurreneko bazkaria. 11:30ean, 50. urteurreneko ekitaldien bideo emonaldia, institutuko aretoan; 13:00etatik 14:00etara, bazkaltzeko mahaietan lekuen erreserbea, institutuan; bitartean Fotokola; 14:30ean, bazkaria; 16:30ean, bingoa eta 18:00etan, jantzaldia. Prezioa 15 euro. Edalontziak etxetik eroan. Txartelak 10era arte erosi daitezke institutuan 08:15etik 14:15era, Txaparro tabernan edo Herriko Tabernan.

ZEANURI

11:00etan, Gorbeia Turismok antolatuta, Undurraga urtegiari buelta. Izen-emotea turismo@gorbeialdea.com helbidean edo 94 612 26 95 telefonoan.

URRI BIGARRENAK 16
ARANTZAZU

Sanfaustoak. 10:00etatik 14:00etara, Gure 2. azokea. Arratiako artisauak, ehun barriak eta bigarren eskuko musika eta liburuak plazan; 12:00etan, Rakel Imazen *Munstroak, printzesak eta sorginaren bat* ipuin kontaketea udaletxeko goiko lokalean; 14:00etan, Txikiren bakarriketea *40 urte eta aldapan behera niek* Herriko Tabernan.

IGORRE

17:00etan, zinea, *Tadeo Jones 3: La tabla esmeralda*; 19:30ean, *La vida padre*. Lasarte Aretoan.

KOMIKIA

Iman Olatu



IRAGARKI LABURRAK

DANERIK

HELDUENTZAKO ZERAMIKA IKASTAROA

Areatzan astelehenetik eguenera egun bat aukeran. 11:00etatik 12:30era. 120 euro hiruhilekoa (materiala barne, labakadea ez). Interesdunek deitu 615 731 182 telefonora (Saioa Larrea).

GARAJEA ALOKATZEN DOT

Garajea alokatzen da Igorreko Elexalde kaleko 56 zenbakian. Eleiza aurrean.

Telefonoa: 94 631 60 22.

EDADEKO PERSONEA JAGON

Zeanuriko baserri baten, astegoienetan, zapatu goizetik domeka arrastira, edadeko personeagaz egoteko laguna behar da. Gidabaimena eukitea garrantzitsua da.

Interesdunek deitu: 652 716 349.

TXAKURKUMEA OPARITZEN DOGUZ

Ama labradore errazakoa. Interesdunak jarri hartu-emonetan gugaz: 628 041 526 telefonon.

LANA

GARBIKETA LANAK

Igorrerako eta inguruetarako etxeko garbiketak egiteko zerbitzua eskaintzen dot. Interesdunek deitu 651 708 595 telefonora.

GITARRA KLASEAK EMOTEN DODAZ

Hari's Rosk School. Gitarra klase personalizatuak emoten dodaz adin guztietarako. Igorreko Kiñu Gaztetxean. Interesdunek deitu 664 303 528.

ETXEA GARBITZEKO LAGUN BILA

Arantzazun astelehen eta eguen goizetan etxea garbitzeko persona baten bila nabil. Lanerako prest egon ezker, telefono honetara idatzi edo deitu: 669 949 471.

KLASA PARTIKULARRAK IGORREN

3-4 DBH eta Batxilergoko ikasleentzako matematika, fisika, kimika, teknologia... klaseak eskaintzen dira institutu ondoan. Informazino gehiagorako Whatsapp-a bidali zenbaki honetara: 608 381 984. John.

LOGELAKO ALTZARIAK SALGAI

Logelako altzariak saltzean dodaz. Interesdunek deitu telefono honetara: 689 565 364.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@begitu.eus helbidera. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa



Zenbaki honetako saridunak:

1 Karmelo Uriarteren "Ederriko". Kontau behar dot liburu bana.

2 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera **Katuen kontuak** ikuskizun poetiko musikalerako.

Pedro Mari Legarreta (Igorre) Itsaso Bengoetxea (Igorre)

Arantza Aldekoa (Artea) Bego Pedrosa (Areatza)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUk 20 urte eta ehundaka lagun.

94 673 90 13/649 979 115 | www.begitu.eus | begitu@begitu.eus

umean meda
seim
 0-16
 Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
 Tfnoa. 94 631 92 96 • seimmoda@hotmail.com

KIRRU
 ILEAPAINDEGIA
 ROSANA eta ROBER
 SABINO ARANA 38
 IGORRE
 Tlf. 94 631 92 00

BIXER
 TABERNA
 Boko kalea, 2 - Tlf. 94 631 73 65 - VILLARO

begitu

BIZARGINAK
 «Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dogu» Baxarra egin eta buzkunduen dogu
 Tlf. 94 607 78 33
 Lehendakari Agirre 9, behea IGORRE

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
 Sabino Arana, 3. 3a
 Igorre 48140 Bizkaia
 Tlf. 94-673-70-87
 Tlf. 609-79-40-54

ZEKUTZE
 JATETXEA
 Sabino Arana, 34
 48140 IGORRE - Bizkaia
 Tel.: 94 631 52 83
zekutzejatetxea@hotmail.com

Dia %
PEDRO
AUTOZERBITZU
 Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
 Tlf. 94 631 15 26

Pinturas Aratia
 Javi Morato
 Tlf. 628 443 992

ZUZENBIDE
 ASEGURUAK:
 AUTOAK
 ETXEBIZITZAK
 AHOLKULARITZA:
 LAN ZUZENBIDEA
 ZERGAK
 KONTABILITATEA
 DENDAK
 ISTRIPUAK
 BIZITZA...
 Tlf. 94 673 71 41 • 94 673 70 55 • 94 612 11 96 • Faxe 94 612 11 96
 Sabino Arana 3. behea - Igorre (Bizkaia)

begitu
 .eus

EKINEAN ZENTROA




Lehendakari Agirre 4, Igorre (Herriko gainean)
652 702 650 - maitealdekoa@gmail.com
 [ekineanpsikologiazentrua](https://www.instagram.com/ekineanpsikologiazentrua)

- Estimulazio goiztiarra
- Laguntza psikoedukatiboa
- Adimen emozionala
- Trebetasun sozialak
- Psikomotrizitatea
- Logopedia
- Gazteenganako esku-hartzea
- Helduen lanketa emozionala
- Guraso eskola

Ume, gazte edota heldu bakoitzaren beharrianetara egokitutako erantzunik onena emateko beti prest!

ARANTZAZU

II. GURE

URRIAK 16 DOMEKA

AZOKA

10:00-14:00

ARRATIKO ARTISAUTZA, ARROPA/TEXTIL BARRIA, BIGARREN ESKUKO MUSIKA ETA LIBURUAK

12:00etan, Rakel Imazen Munstroak, printzesak eta sorginaren bat
ipuin kontaketea udaletxeko goiko lokalean.

14:00etan, Txikiren bakarrizketea
40 urte eta aldapan behera niek Herriko Tabernan.



ARANTZAZUKO JAI BATZORDEA





BAIETZ 50 LAGUN BARRI EGIN!

2022AN EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN! BEGITU-LAGUN EGITEAK SARIA DAUKA!

Begitu aldizkariaren asmoa eten barik hobetzea da, beti be Arratia-Ubide-Zeberio inguruko euskerazko aldizkaria euki daigun. Baina horretarako baliabide ekonomikoak indartu behar doguz, Begitu bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eutsi ahal izateko. Horretarako **2022an egin zaitez Begitu-lagun!** kanpaina abiatu gura dau Begitu aldizkaria argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkartea, eta helburua argia da:

Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekari euskalduna babestuko dozu?

Oindino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:

Zertu Kultur Elkartea Herriko plaza 24. 48142 Artea.



*Gainera Begituren produktu honeek helduko jatzuz etxera doban.

Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

Telefonoa: _____ Helbide elektronikoa: _____

Kontu korrontearen zenbakia: ES _____

Aukeratu urteko kuotea: ☐ 35€ ☐ 55€ ☐ 75€

begitu.eus    

Edo e-mailez, bialdu datuok: begitu@begitu.eus helbidera.